

INFORMAZIOA CHILLIDA LEKUN KONTZERTUAZ MODU EROSO ETA SEGURU BATEAN GOZATU AHAL IZATEKO

Sarbidea eta aparkalekua:

Kontzerturako sarrerak museorako sarbide-eskubidea ematen du, egun osoan zehar museoa lasai bisitatu ahal izateko. Gutxienez 40 minutu lehenago iristea gomendatzen dizugu.

Kontzertua 19:00etan hasiko da.

Ibilgailu pribatuan bazatoz, Galarretako aparkalekuan utzi beharko duzu. Doako autobus bat egongo da Galarretatik museora **17:45etatik 19:00etara**, eta ekitadia eta gero Galarretara **21:30ak arte** itzuliko da.

Kontzertua + afaria:

Ibilgailu pribatuan iristen bazara, Chillida Leku Museoko aparkalekuan aparkatu ahal izango duzu, baldin eta plaza libre badauke. Hala ez bada, non aparkatu behar duzun adieraziko dizugu.

Taberna zerbitzua:

Lurra Café irekita egongo da kontzertuaren aurretik eta ondoren, eta afari zerbitzu bat eskainiko du kontzertuaren ondoren (aldeztatik erreserbatu beharrekoa). Ezingo da kanpotik janaririk edo edaririk ekarri.

Segurtasun eta higiene neurriak:

Gogoan izan maskara beti jantzita eraman behar dela nahitaez. Manta bat edo estera bat ekartzea gomendatzen dizugu, eroso-eroso goza dezazun kontzertuaz; gainera, hamaka kopuru mugatu bat egongo da bertaratzen direnentzat, eskuragarri iriste-ordenaren arabera. Esertzeko leku bana emango zaie bertaratuei, segurtasun-distantzia mantentzen dela bermatzeko.

Laguntza-txakurrak:

Laguntza-txakurrak gogo onez eta inolako kosturik gabe onartzen dira (gidatxakurrak; alerta medikokoak; gorren, autisten eta mugikortasun murriztua duten pertsonen laguntzatxakurrak, etab.), ahalmen urriko pertsonentzako laguntza-txakurrei buruzko ekainaren 29ko 10/2007 LEGEAREN arabera.

Arropa eta oinetakoak:

Gure gomendioa da, ilunabarrean tenperatura pixka bat jaitsi ohi denez, bero egoteko arropa ekartzea, baita oinetako erosoak ere, museoko zelaietatik ibiltzeko.

Zure zain gaude Chillida Lekun oso kontzertu berezi batez gozatzeko.

Edozein zalantza edo kontsulta baldin baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan:

reservas@museochillidaleku.com / infojazz@donostia.eus